

ALTA TXOSTENA 2

60 urte dituen gizonezkoa, kontsultetatik ospitaleratzen dena, beherako eta pisu galera garrantzitsuagatik.

AURREKARI PERTSONALAK

B gradu baxuko linfoma, tratamenduan gaur egun. Sintomarik gabeko prostatako hiperplasia, hiperurizemia, dislipidemia mistoa. Koloneko minbiziagatik zendutako aita.

OHIKO TRATAMENDUA:

Clorambucilo (pilula: 2mg):4mg/egun

EGUNGO GAIKOTASUNA:

Hilabete bateko bilakaera duen beherako-koadroagatik doan pazientea. Eguneko ur loditasuneko hainbat gorozki kontatzen ditu. Aldizkako min abdominala koliko motakoa eta janariekiko erlaziorik gabekoa. Gainera oka egiten du. Azken hilabete honetan 18kg inguruko galera. Ciprofloxacinorekin tratatua izan da, hobekuntzarik gabe.

MIAKETA FISIKOA:

Odolaren tentsio arrunta, sukar egoerarik ez, maiztasun kardiakoa 78 lpm, 93-94% saturazioak, arnasketa normala eta arnas lanik gabe.

Auskultazio kardiakoa: tonu garbiak, erritmikoak, murmuriorik gabe

Biriketako auskultazioa: normala, zarata patologikorik ez

Abdomen: biguna eta deprimigarri. Hipogastrio-ko haztapen sakonari mingarri, masak haztatu gabe, peritonismoaren zeinurik gabe

Edemarik ez, zain sakoneko tronbosiaren zeinu eza

FROGA OSAGARRIAK:

Analitikak: normala

Biokimika: giltzurrun-funtzio eta elektrolitoetako normaltasuna. Nabarmentzen da urikoa 8.2mg/dl, LDH: 986 UI/L. PT 5.9gr/dl, albumina 3.2gr/dl. Profil lipidiko eta hepatikoa: aldaketa adierazgarririk gabe.

Abdomenaren Rx: Digestio hodiaren tarte baxuetako aire kantitate urria. Heste buxadura daturik ez dago.

PIT-OTA(gorputz osoa): foku hipermetaboliko mugatuak: Birika GEL, SUV 11.76; Adenopatiak: eskubiko paratrakeala, SUV 2.61 eta 2.49; ezkerreko birika hila, SUV 4.16; paraaortikoa SUV

3.52; mesenterikoa SUV 3.37; Ondorioak: aurkikuntzek, bere gaixotasun metabolikoaren berriz erortzearen arrazoia gaitz neoplasiko linfoide heldua dela iradokitzen dute. Birika lesioaren natura egiaztatzea gomendatzen dugu.

Abdomen eta pelbisaren OTA kontrastearekin: adenopatia mesenterikoak eta peritonealak, ezaguna den prozesu linfaproliferatiboarekin erlazioa duena, egonkor eta aurreko ikerketekin alderatuta tamaina areagotu gabe.

Fase portalean: 15mm-ko lesio hepatico probablea 4. segmentuan

Kolon sigmoidea: Lesio endoluminala. Duela bi urtetik mailakako hazkundera izan du eta gaur egun, transhormako infiltrazioko zeinuak aurkezten ditu mesosigmaren gantzean tumorearen luzapenarekin. Tamaina txikiko gongoilak ikusten dira. Guzti hau, kolon sigmoideko neoplasiaren iradokitzailerik da (biopsia berriaren bidez konfirmatzeko)

Biopsia endoskopikoa: heste itxura arte aztertzen da. Balbula ileozekala edemazkorra eta itxura infiltratiboarekin ikus daiteke. Balbularen eta sigmaren hainbat lekutako biopsiak hartzen dira. Gainontzeko kolona, dibertikulu anitzekin. Anatomia patologikoaren emaitza: koloneko mukosa: Mantoko zelulen linfoma zentroblastikoa. Dibertikulosis pakolonikoa

BILAKAERA:

PIT-aren emaitzaren arabera hesteetako biopsia bat egiten da, honen emaitza: Mantoko zelulen B linfoma. Beherako prozesua kontrolatu da eta berezko eta familiaren nahiagatik, etxeko ospitalizazioaren zaintzarekin jarraitzeko familiaren bizilekura eramaten da.

DIAGNOSTIKOA:

Mantoko B linfoma, nodulu linfatiko mediastinikoak, intraabdominalak, biriketakoak eta kolonikoak. Foku infekziosorik gabeko gastroenteritis kronikoa. Dibertikuluak

KODIFIKAZIOAREN 2. EREDUA. 2. TAULA

Ordena	Kodea	Deskribapena	POA
1	C83.19	Zelula arrailatu txikia(hedatsua)	S
2	9673/3	Linfoma gaizto linfositarioa, tarteko diferentziazioarekin. hedatsua	
3	K57.30	Koloneko dibertikulu-gaixotasuna, zulaketa eta abszesurik gabe, odoljariorik gabe	S
4	K52.89	Beste gastroenteritis eta kolitis infekzioso batzuk zehaztuak	S
5	E79.0	Hiperurizemia, artritis inflamatorioaren eta tofo-gaixotasunaren zeinurik gabe	S
6	E78.2	Hiperlipidemia mistoa	S
7	N40.0	Prostatako hiperplasia	S
8	Z80.0	Liseri-organoetako neoplasia gaiztoaren historia familiarra	

PROZEDURAK

Ordena	Kodea	Deskribapena
1	0DBN8ZX	Sigmako biopsia kolonospikoa
2	0DBC8ZX	Balbula ileozekaleko biopsia kolonospikoa
3	CW3NYZZ	Gorputz osoko OTA
4	BW03ZZZ	Toraxeko RX
5	BW211ZZ	Abdomen eta pelbiseko OTA kontrastearekin